

## HAUTAKETARAKO PROFILAREN FITXA

<b>LANPOSTURAKO PROFILA</b> - Lanpostuaren izena:	<b>Lurraldeen arteko lankidetzako proiektuen kudeatzailea</b>
<b>LANPOSTUA</b>	<b>Teknikaria - Estatutu eta kontratu bidezko errekrutamendua</b>
<b>ESLEIPEN GEOGRAFIKOA</b>	<b>“Akitania-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdea”</b> Lurralde Lankidetzako Europako Taldearen (LLET) egoitza <b>HENDAIA (64700) - FRANTZIA</b>
<b>HELBURU NAGUSIA:</b>	Euroeskualdeko lankidetzako proiektuak kudeatzea, mugaz haraindikoak bereziki, LLETren jarduera-arlo desberdinetan eta LLETko zuzendariaren agindupean.
<b>JARDUEREN DESKRIBAPENA:</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Euroeskualdeko proiektuak bultzatu eta kudeatzea honako arlo hauetan: enplegua, ekonomia, goi-mailako irakaskuntza, lanbide-heziketa eta etengabeko prestakuntza, eta ikasleen eta profesionalen mugaz haraindiko mugikortasuna “Akitania-Euskadi-Nafarroa” euroeskualdean.</li> <li>- Europan, estatuan eta eskualde mailan arlo horietarako dauden politiken jarraipena egitea, eta baita sare elkartuetan daudenena ere.</li> <li>- Euroeskualdeko lantaldeak koordinatzea, arestian aipatutako arloetan lankidetzan aritzen diren eragileekin harremanetan egotea eta haiekin sarea eratzea (jarraipena egiteko txostenak egitea, bilerak antolatzea, etab.)</li> <li>- Europako lurralde-lankidetzarako proiektuak (Espainia-Frantzia-Andorraren arteko Lurralde Lankidetzarako Programa bereziki) eta Europako beste deialdi batzuetarako proiektuak kudeatu, garatu eta aurkeztea.</li> <li>- Mugaz haraindiko enpleguari buruzko informazioa eskaintzeko web atari bat bultzatu eta eguneratzea, euroeskualdeko lankidetzan berebizikoak diren eragileekin sinatutako Hitzarmen Estrategikoen jarraipena egitea, etab.</li> </ul>

<p><b>ESKATZEN DIREN PRESTAKUNTZA MAILA ETA GAITASUNAK:</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Master I eta II mailako prestakuntza eskatuko da. Horrez gain, hautagaiak orotariko kultura maila ona izan beharko du eta ondo ezagutu beharko ditu euroeskualdea bera eta mugaz haraindiko espazioa. Adb.: Politika-zientzien Gradua (Master I - Master II), Zuzenbidea (publikoa eta Europakoa), Ekonomia-zientziak, Geografia, Antolamendua.</li> <li>- Hizkuntzak: Euroeskualdeko hizkuntzetan (euskara, gaztelania eta frantsesa) hitz egiteko, idazteko eta lan egiteko gaitasuna izan beharko du hautagaiak. Ingelesa jakitea ere baloratuko da.</li> <li>- Idazteko gaitasuna duela eta erregulartasunez idazten duela frogatu beharko du hautagaiak.</li> <li>- Akitania Berriko, Euskadiko eta Nafarroako errealitate sozioekonomikoa ezagutu beharko du.</li> <li>- Tresna eta programa informatikoak erabiltzen jakin beharko du.</li> <li>- Antolatzen eta gauzei aurrea hartzen jakin beharko du. Erreakzionatzeko gaitasuna eta autonomia.</li> <li>- Taldean lan egiteko eta lantaldeak animatzeko gai izan beharko da hautagaia.</li> </ul>
<p><b>LANALDIA</b></p>	<p>Lanaldi osoko dedikazioa eskatzen duen lanpostua da (35 orduko oinarria)</p>
<p><b>ORDAINSARIA</b></p>	<p>Estatutuen araberako ordainsaria + ordainsarien araubidea (Urteko ordainsari gordina: 26 952€ eta 33 804€ bitartean)</p>
<p><b>HAUTAGAITZA BIDALTZEKO (CV + motibazio gutuna)</b></p>	<p>“Akitania-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdea” LLETko zuzendari jaunari zuzendu behar zaio hautagaitza</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Posta elektronikoz bidez</b>, honako helbide elektronikoa honetara: <a href="mailto:celine.piva@aquitaine-euskadi.eu">celine.piva@aquitaine-euskadi.eu</a></li> <li>- <b>edo posta arruntz bidez</b>, honako helbide honetara: “Akitania-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdea” LLET Rue Leku Eder</li> </ul>

	<p>ZI des Joncaux 64700 Hendaye</p>
<b>INFORMAZIOA</b>	<p>Informazio gehiago behar izanez gero, jarri harremanetan PIVA andrearekin, hots, LLETaren administrazio- eta finantza-arduradunarekin:</p> <p>Telefono-zenbakia (Frantzia): + 33 5.59.01.64.80</p> <p>eta/edo posta elektronikoz bidez: <a href="mailto:celine.piva@aquitaine-euskadi.eu">celine.piva@aquitaine-euskadi.eu</a></p>